

## **2.011KO AZAROAK 3**

### **OHIKO PLENOA.**

Bertaratuak:

**ALKATEA  
ZINEGOTZIAK:  
Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.  
Nerea Agirretxe Aranburu.  
Harkaitz Arruti Eizagirre.  
Leire Beristain Mendizabal.  
Luis Berrondo Lanceta.  
Iñaki Irulegi Apalantza.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamaikako azaroaren hiruko gaueko bederatziak eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:  
2011KO URRIAREN 6KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Alkateak urriaren 6ko aktaren berri ematen du eta zinegotziak aho batez onartzen dute.

**BIGARRENGO PUNTUA:  
2/2011 KREDITU ALDAKETA TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN  
ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak 2/2011 zenbakia daraman kreditu aldaketa transferentzian modalitatearen berri ematen du, kreditu aldaketaren laburpena ondorengo delarik:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

<b>Partida</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gutxipena</b>	<b>Amaierako Kreditua</b>
1.0000.227.313.00.97	Tele alarma zerbitzua	200,00	200,00	0,00
1.0000.227.452.00.99	Eskola kirola	2.300,00	520,00	1.780,00
1.0000.230.120.00.01	Pertsonalaren dietak eta bidaia	200,00	200,00	0,00
1.0000.231.110.00.01	Korporatiboen dietak eta bidai	600,00	600,00	0,00
1.0000.421.313.00.01	Saiaz mankomunitatea	31.000,00	963,52	30.036,48
<b>GUZTIRA</b>		<b>34.300,00</b>	<b>2.483,52</b>	<b>31.816,48</b>

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

<b>Partida (*)</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1.0000.221.441.00.01	Argikuntza: ur hornidura bonba	1.600,00	450,00	2.050,00
1.0000.222.450.00.01	Telefonoa, liburutegia	700,00	150,00	850,00
1.0000.224.110.00.99	Aseguruak, korporatiboak	2.500,00	129,48	2.629,48
1.0000.430.521.00.01	Udalak, errepetidorea	500,00	64,55	564,55
1.0000. 622.452.00.01	Eskola ondoko parkea	26.000,00	181,29	26.181,291
1.0000. 685.451.00.01	Aulkiak, mahaiak, oholak	15.000,00	1.508,20	6.508,20
<b>GUZTIRA</b>		<b>46.300,00</b>	<b>2.483,52</b>	<b>48.783,52</b>

Idazkariak aipatzen du, indarrean dagoen legediaren arabera, aipaturiko kreditu aldaketa ez dala Boletinean argitaratu behar eta kontabilitatean apuntea automatikoki giten dela.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1.- Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Nerea Agirretxe Aranburu, Luis Berrondo Lanceta, Iñaki Irulegi Apalantza eta Leire Beristain Mendizabal.

2.- Aurkako botoak: ez dago.

3.- Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2/2011 zenbakia daraman kreditu aldaketa aho batez onartzen da.

**HIRUGARREN PUNTUA:  
ERREZILEN HILETA ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZAREN HASIERAKO  
ONARPENA.**

Idazkariak Errezilen hileta zibilak egiteko ordenantzaren berri ematen du, ordenantzak literalki zera dio:

**“ATARIKOA**

**I.KAPITULUA**

**HASIERA**

**1. artikulua.**

Ordenantza honen helburua da Errezilgo udalerrrian hileta ospakizunak egiteko baldintzak arautzea, edozein dala pentsaera, sinismen edo ideología.

Araudi honen arautzen ditu, batetik, halakoak egiteko errezildarrei eskaini dakizkiekeen lekuen erabilera eta bestetik, horiei buruzko baimenak.

**2. artikulua.**

Alkateak edo berak izendatutako zinegotziak emango du baimena, 5. artikuluan finkatutako lokalak eta espazioak erabiltzeko, aldez aurretik Errezilgo Udaletxeko Erregistroan eskaera aurkeztuta.

**3. artikulua.**

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak Errezilgo Udaleko Alkatetzara zuzendu behar dira. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako moduren batean. Eskaera ospakizuna egin nahi duten egunean goizeko 11:00ak baino lehen aurkeztu beharko da.

**4. artikulua.**

Hiletak edo omenaldiak egiteko eskaeren tramitazioa zirkunstantziek eskatzen duten arintasun printzipioen arabera egingo da eta eskumena duen pertsonarengana helaraziko dira hark erabakia hartzeko.

## **5. artikulua.**

Eskaerek honako datu hauek eduki behar dituzte:

— Ekitaldia ospatzeko baimena eskatzen duen pertsonaren izen-deiturak, helbidea eta identifikazioa.

— Hildako pertsonaren izen-deiturak.

— Heriotza ziurtagiria.

— Hileta zibila egiteko lehentasunezko eguna eta ordua. Udalak ahal duen neurrian aintzakotzat hartuko ditu eskatutako data eta ordua, beti ere eskaeren aurkezpen ordenari jarraituz. Aipatu ordena aldatu ahal izango da zirkunstantzia edo kasu berezietan, beti ere behar bezala arrazoituta.

— Ekitaldiaren gutxi gorabeherako iraupena.

— Eskaera lekua eta data.

— Eskatzailearen sinadura eta/edo bere borondatearen benetakotasunaren egiaztapena edozein baliabidez.

— Ekitaldiaren azalpen laburra eta erabiliko den materialarena (mahaiak, aulkiak, megafonia).

Oro har, ospakizun hauek hurrengo eraikin edo espazio publiko hauetan egingo dira:

— Pilotalekua

— Gernika Enparantza

— “ Plaza de la Diputación de Guipuzcoa”

## **6. artikulua.**

Eskaerak ez baditu betetzen aurreko artikuluan ezarritako baldintzak, interesatuari errekerituko zaio ahalik eta lasterren, ekitaldia baino lehen edo ondoren, konpontzeko egindako hutsegitea edo aurkezteko aginduzko dokumentuak.

## **II.KAPITULUA**

### **INSTRUKZIOA**

#### **7. artikulua.**

Hileta zibilaren ekitaldi eguna eta ordua alkateak edo berak ahalmendutako zinegotziak finkatuko ditu, hartarako irekitako espediente aurretik dela.

Instrukzioa eskaeren aurkezte ordenari jarraituz egingo da eta eskatzaileek emandako lehen tasun ordena ahal den guztian errespetatuz. Ordena hori aldatu ahal izango da aparteko eta premia larriko zirkunstantzia objektiboak gertatzen direnean. Edozein kasutan, aparteko eta premia larriko izaerak behar bezala arrazoituta egon behar du eta beren eskubidean aldaketa pairatu dutenei entzun egin beharko zaie.

#### **8. artikulua.**

Hileta zibila zein lokaletan edo Udaletxeko zein espaziotan egingo den alkateak edo berak ahalmendutako zinegotziak erabakiko du. Oro har, 5. artikuluan finkatuetako bat izango da. Aparteko egoeretan baimena eman ahal izango da beste lokal edo espazio publikoren bat erabiltzeko.

#### **9. artikulua.**

Hileta zibilak asteko edozein egunetan egin ahal izango dira, 17:00etatik 20:00etara.

#### **10. artikulua.**

Errezilgo Udalak ez du kosturik eskatuko ospakizun hauengatik.

## **III.KAPITULUA**

### **ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **12. artikulua.**

Kontserbazio egokia bermatzeko, baimena duen titularrak izango du erantzukizuna, ekitaldiarengatik udal ondasunetan gertatzen diren kalte eta galeren aurrean.

#### **13. artikulua.**

Hileta zibilaren ekitaldia egingo den tokia modu berezian apaindu edo atondu nahi badute familiakoek eta/edo adiskideek, udal arduradunari garaiz jakinarazi behar diote,

bidezko erabakiak har ditzan. Apaintze edo atontze lanek tokiaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu behar dituzte eta sortzen dituen gastuak haien kargura izango

dira. Ekitaldia gauzatzeko zerbitzu osagarriak pertsona interesdunak emango ditu eta bere kargura izango dira. Halere, Errezilgo Udalak haien gainbegiraketa egingo du.

Baimena duen titularrak izango du erantzukizuna, ekitaldiarengatik udal ondasunetan gertatzen diren kalte eta galeren aurrean.

#### **14. artikulua.**

Hileta zibiletan familiaren erabakia izango da gorpua aurrean egotea ekitaldian eta baita ere errauts kutxatilen presentzia.

#### **15. artikulua.**

Ordenantza honetan aurreikusten ez denaren aurrean, udal arduradunen aginduei jarraitu beharko zaie.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean; eta indarrean jarraituko du Udalak Osoko Bilkuran aldatu edo indargabetu arte”

Idazkariak jakinerazten du, Toki Erregimenaren Oinarrien Legearen 49 b) artikulua xedatutakoa betez, aipatu onespena jendaurreko erakustaldian ezartzen dela, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN azaltzen den biharamunetik hogeita hamar eguneko epean, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe honen erreklamaziorik ez bada ezartzen, onspena behin-betikoa bihurtuko dela.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Nerea Agirretxe Aranburu, Luis Berrondo Lanceta, Iñaki Irulegi Apalantza eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Errezilen hileta zibilak egiteko ordenantzari hasierako onarpena ematea hau batez onartu da.

**LAUGARREN PUNTUA:  
SAN MARTIN JAIETARAKO EGITARAU ETA AURREKONTUAREN  
ONARPENA.**

Nerea Agirretxe zinegotziak dio aurtengo San Martin jaietarako aurrekontua 7.291 €takoa dala gehi Gizarte Segurantzara, ondorengo kontzeptutan banatuta:

**GASTUAK**

- 1.- Izer eta Alabier: 600 €+ 54€(3 afari)
- 2.- Txingak: 3 xesto: 150 €  
3 gazta: 75 €  
3 txanpain: 30 €
- 3.- Krosa: 3 kopa:62 €+ 50 domina (100 €)= 162 €
- 4.- Mus txapelketa: txapelak+ sariak =620 €
- 5.- Hamaiketakoa: 500 €
- 6.- Giza probak: arnesak (400 €)+ 20 afari (400€)=800 €
- 7.- Poteoa: 200 €
- 8.- Sagardo dastaketa: 600 €
- 9.- Egurra eta Kitto: 720 €
- 10.- Azoka: Postuak: bakoitzeko 55€  
Gaztak: bakoitzeko 25 €  
Postreak: denentzat afaria 300 €inguru
- 11.- Herri kirolak: 1.100 €
- 12.- Play-Back: 300 €
- 13.- Zapatu eta igandetako bileteak: 100 €
- 14.- Herri afariko painueloak, giza-probetako nikiak eta herri kiroletako nikiak:  
900 €

**GUZTIRA- 7.291 €+ Gizarte Segurantzara**

**SARRERAK**

- 1.- Propaganda
- 2.- Herri afariko txartelak
- 3.- Museko inskripzioak
- 4.- Sagardo dastaketa baso salmenta
- 5.- Errifak

Iñaki Irulegi zinegotziak galdetzen du ea Gizarte Segurantzako gastuak zenbait izango den. Idazkariak erantzuten dio, kalkuloak atera beharko dituela.

**2011ko JUBILATUEN EGUNEKO AURREKONTUA**

**GASTUAK:**

Bazkaria: menua 32 €x 60 pertsona= 1.920 €

Plakak: 2 x 50 = 100 €  
Bertsolariak: 200 €  
Trikitilariak: 200 €

Egitarauari dagokionean,

Azaroaren 11an San Martin egunean, txupinazoa, meza, ume jolasak, herri afaria eta dantza emanladia Izer eta Alabarriekin.

Azaroaren 12an, herriko gaztetxoekin lasterketa, bazkaria, mus txapelketa, bertso-triki poteoa, elkarretaratzea, sagardo dastaketa, giza proba eta Egurra eta Kitto emanaldia.

Azaroaren 13an, meza, herriko produktuen azoka eta gazta eta postre lehiaketa, jubilatuen bazkaria eta herri kirolak.

Beraz, Alkateak ondoko proposamena onartzea proposatzen du:

Lehena.- 2011 ekitaldiko San Martin jaietako egitaraua eta aurrekontua onartzea.

Bigarrena.- 2011 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.226.452.00.06 kontu sailari 7.291 euro gehi Gizarte Segurantza egozte.

Hirugarrena.- Jaietako egitarauari zabalpena ematea esku programen bitartez, Hitza aldizkarian argitaratuz eta herri irratia bitartez.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Nerea Agirretxe Arruti, Iñaki Irulegi Apalantza, Luis Berrondo Lanceta eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik: ez dago.

Beraz, San Martin jaietako aurrekontua eta egitaraua onartuta geratzen dira.

#### **BOSTGARREN PUNTUA:**

**JUAN MARI EIZMENDI JAUNARI ERNATZAIZGO LURSAILETAN ABERE BORDA BAT ERAIKITZEKO EMANDAKO BAIMENAREN TASAREN EXENTZIOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Ikusirik 2011ko uztailaren 18an Juan Mari Eizmendi jaunak Ernataitzgo lursailetan abere borda bat eraikitze baimena eman zitzaioa, 503,32 €-tako tasa likidatu zitzaiolarik.



Ikusirik 2011ko uztailaren 26an nekazal iharduerara dedikatzen denez, tasaren %95eko hobaria eskatzen duela.

Ikusirik 2007 urterako onarturiko Ordenantza Fiskalen arabera nekazal jarduerari lotuta dauden eraikuntzak eta bere etxebizitza, hau da, baserriak %95eko bonifikazioa izango dutela.

Ikusirik Ordenantzan eskatzen den dokumentazio guztia aurkeztu duela.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Nerea Agirretxe Aranburu, Luis Berrondo Lanceta, Iñaki Irulegi Apalantza eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Juan Mari Eizmendi jaunari Ernataitzgo lursailetan abere borda bat eraikitzeko emandako baimenaren tasaren (503,32 €) %95eko exentzioa aho batez onartu da, honela tasa gisa 25,17 €ordaindu behar dituelarik.

**SEIGARREN PUNTUA:  
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:  
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2011ko urriaren 7tik (154/2011 Alkatetza Ebazpena) azaroaren 24ra (166/2011 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:  
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

Alkateak ondorengo 3 berrien berri ematen du:

1.- Eskola Txikiak 25 urte: auzo txikietako eskolei buruzko ikus-entzunezko dokumentala burutzeko, eskola txikien Errezilgo Udalari 1.000 €tako dirulaguntza eskaera egin diote.

Oraingoz mahai gainean geratzen da.

2.- Taxi busari dagokionez, Diputazioak goizeko 7:15etako autobusa onartu dute.

3.- Ordenadoreen mantenimentua: UKABI-ri esleitu zaio 2011ko irailaren 22ko data daraman 2011/514 aurrekontuaren arabera.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatzia eta berrogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.